Andoain.1984 otsaila.

# AZari Dantzaren berri

1937'garren urtea zan.Gudatea.Beasaina joan berria,gudaritzara:emezazpi urte.Uda:agorrila ain zuzen.

Gazte gaztetandik liburuzale izan ni eta liburu miratzaile.Beasaingo Udaletxea izan zan nire garai hartako lantokia.

Egun batez hor nauzute Udaletxeko sabaian,zerbait arrigarririk bai ote zegoen edo,uxarrean eta bai- idoro ere.Bazter batean han ediren nintuen "TXISTULARI" aldizkari ale batzuk.Arriturik gelditu nintzen !

Garai hartan euskal liburu edo idaztiak debekaturik ziren eta horretxegatik egongo ziren noski han,norbaitek boteak.

Horduate,aldizkari hori izaten zenik ere ez nekien,ez nuen beinere entzun:aal izan nuen bezala,jaso nizkizuen ale haiek eta nire gurasoek bizi ziren etxera,Andoainera,opor aldi txoa izan nuen bezain laister ekarri nintuen.

Etxean gordetokirik banuen eta hor gelditu ziren gudatik itzuli arte.

Nire etxean,guda ondoren eta txolarte batzuk izaten nituen eta egun batez ale horiek irakurtzeari eman nion.Ale horietako bat irakurtzen ari nintzela arriturik gelditu nintzen.Zertaz ?

Andoainen eta Adunan dantzatzen zan "Azari dantzaren"berri zekarren !

Gutxi gorabeera honela zion:::::...

Andoaingo jaietan,ots,San jaun egunetan dantz egiten zala:irugarren jai egunean eta eguerdiko amabietan.Eliz nagusiko ordulariak Angelus joialeak danbatzen zituen bezain laster asten zirela dantzan eta "AITAREN" eginaz.

Cianetatik jexten ziren ikazkilleek dantzatzen ztela.
Buruntza mendiko "Buruntza-Etxeberri"ko maiztar edo basetxetiarrak eta Aranburu biirizena zuenak ere bai ote zekien dantzatzen(Ongi ez dut buruan,Aranburu honen berri ale hortan irakurri nuen edo beste norbaitek esan ote zidan)Adunan ere dantzatzen zela......
Geroztik,gai honen berri jakin maiz asi nintzen batera eta bestera:guda aurretik "Batzoki"an ezpata dantzari izan zireneri galde egin nien ots,Karmelo Lasarte`ri,Ramon Aldaluri,Pedro Aranburu´ri eta beste geiagori ere bai baina hortxok etziran garbitasunik eman.
Hortaz,Inaxio Aizpurua,Andoaingo txistulari nagusia zanarengana jo nuen: Eliz nagusiko kantari ginen biok eta adiskidetasun naikoa ba nuen,berronekin.Gizaki honek gogoan zitun dantzaren urratsak eta soinua:jantziak ere bai noski,geroztik jakin dugunez.Dana alperrik !Astoentzat osatutako dantza zela eta eginalak eginarren etzuen irakatsi nai izan.Nolabait beintzat soinua luzatu zidan.(Musika alegia).Musika hau gorderik eduki izan dut urte askotan:ocei edo deiagoan bai.
"Lizar- Makil" dantzari taldeko buru izentatu ninuenean,Juan Antonio Urbeltz ezagun egin nuen:beroni adierazo nion dantza horren gorabera eta Aizpuruarengana joateko ere irikatu ere bai.Alperrik:Urbeltz ere ni bezelatsu irten zuen,ezer gutxi jakinda.Barandiaran Gaizka Josulaguna ere beregan iritxi zala,uste dut.Inaxio zartzen zigoala oarturik eta dantza hori galtzera zijoala ikusirik Adunara zuzentea bururatu zitzaidan eta egun batez hara joan nintzen.Adunako enparantzan,nire adiskide Sesmarekin mintzatu nintzen eta honek eman zidan Sorondo zanaren berri(Garai hartan bizi zen)
Igande goiz batez Lizar-Makil taldeko batzuk lagun nituela joan ginen eta gure txistulari zanak,Joxe Antonio´k,Sorondori jo zizkion doinuak eta nolabait,(Sorondo) asi ziztaigun urratsak botatzen,edo ematen.
Zerbait egin gendulakoan,beste igande baterako utzi genduen eta igande hori etzitzaigun geroztik iritxi:taldea sakabanatzen asi zitzaigun eta hor gelditu zan dantza hura beste egun obego batzuen zai.

Nere berri hoien ondoren,taldeko batzuk artu zuen dantza hau.

- ☐ BIXENTE OLANOK idatzia, seguruenik.
- ☐ Gotzon Etxeberriarekin hitz egin ondoren (2019) gelditzen diren galderak: nola ten ez zuen Bixentek jo Etxeberriatarrengana, jokurik horiek Axeri dantza dantzatu zutela?
  Agustin Etxeberria Fernandez izan zen dantzarietakoa 1888an jaio eta 1966an zendua. Gotzonen aitona. Azkenekoz 1903an dantzatu zuen.
- ☐ Idatzi honetan aipatzen dela dirudi 2003/7/4 Arima, Bixentek atera zuko artikulua.